

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2017ko urriaren 9tik 13rako astea

➤ **INGURU MAKROA:**

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

➤ **GURE IKUSPEGIA**

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: INDUSTRIA-EKOIZPENA

Datuaren analisia

Euroguneko industria-ekoizpenak sorpresa eman zuen eta % 1,4 hazi zen abuztuan, +% 0,6ko igoera besterik aurreikusita ez zegoenean. Aurreko datua ere gorantz berrikusi zen, % 0,3raino. Urte arteko tasei begiratuta, aurreko % 3,6tik % 3,8ra bizkortu zen, % 2,6 espero bazen ere. Hazkundera Alemaniaren portaera onaren eskutik etorri zen, azken sei urtetako hazkunderik handiena izan baitzuen bere hileko datuak (% 2,6 vs -% 0,1 aurrek. eta % 0,9 aurreik.). Urte arteko datua % 4,7koa izan da, % 2,9koa izango zela zioten aurreikuspenen oso aurretik. Italiak ere datu positiboa eskaini zuen, % 5,7koa, eta aurreko datua ere gorantz berrikusi zen. Azkenik, Frantziaren datuak sorpresa negatiboa eman zuen, % 1,1eraino egin baitzuen atzera aurreko % 3,9tik, % 1,5 espero zen bitartean.

Adierazlearen azalpena

Industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegien erantzunetatik lortzen dira datuak. Ekonomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkunderaren analisia egiteko.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: FEDen AKTAK

Datuaren analisia

AEBetan, FEDen azken aktak argitaratu ziren, eta 2018 eta 2019ko aurreikuspenetan ez zuten aldaketa handirik erakutsi. 2017rako hazkundearen aurreikuspenak, aldiz, gorantz berrikusi ziren, % 2,2tik % 2,4ra. Gobernadore gehienek iritziz, aurten tasen igoera gehigarri bat egitea egokia izan daitekeela argi geratu zen. Hala ere, zenbaitek inflazioaren bilakaerarengatik kezka agertu zutela izan zen albiste nagusia, eta horrek igoera hori gertatuko den unearen inguruko kezka piztu litzake.


Adierazlearen azalpena

Fed-en aktak Erreserba Federalaren bilera egin eta bi aste geroago argitaratzen dira. Batzordearen diru-politikari buruzko bileraren erregistroak dira. Gainera, diru-politikaren inguruan FEDek duen jarrerari buruzko informazio zehatza eskaintzen dute. Informazio hori arretaz aztertzen da, intere-tasen inguruko etorkizuneko erabakien emaitzari buruzko zantzuak aurkitzeko.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: XEHEKAKO SALMENTAK / MICHIGANEKO



Datuaren analisia

Iragan ostiralean argitarata eman ziren Michiganeko Unibertsitatearen Kontsumitzailearen Konfiantzaren urriko aurretiko datu oso onak. Aurreko 95,1etik 101,1era igo ziren, esperotako 95aren oso gainetik. 2004tik izan den daturik onena da. Osagaiei begiratuta, gaur egungo egoera 116,4raino hobetu zen, eta etorkizuneko aukerena, 91,3raino. Iraileko xehekako salmenten datua, berriz, ona izan zen, aurreko $-0,1$ etik $1,6$ ra igo baitzen, aurreikuspenak baino hamarren bat gutxiago. Urte arteko datua $4,4$ raino iritsi zen.

Adierazlearen azalpena

Xehekako salmenten adierazleak xehekako salmenta-guneetako diru-sarreraren kopuru osoa neurtzen du, eta kontsumitzailearen gastuaren ahalmen orokorra erakusten du. Hilero enpresei egiten zaizkien galdetegien erantzunetatik lortzen dira datuak. Kontsumitzailearen sentimenduaren indizea (ICC) kontsumitzailearen konfiantza neurtzen duen adierazle ekonomikoa da, eta, beraz, kontsumitzaileen gastua aurreratzen duen adierazlea da. Michiganeko Unibertsitateak argitaratzen du hilero, eta Amerikako 500 etxetan ekonomiaren egoera orokorraren eta gaur egungo zein etorkizuneko finantza-egoera pertsonalaren inguruan egindako inkestan jasotako datuak ditu oinarri. Kontsumitzailearen konfiantza altuak hedapen ekonomikoa sustatuko du, baina, baxua bada, hazkunde ekonomikoaren uzkurdua eragingo du.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

TXINA: PMI CAIXIN

Datuaren analisia

Irailerako Txinako Caixin zerbitzuen PMIaren datuak 2015eko abendutik izan duen hazkunde-erritmorik txikiena izan zuen (50,6 vs 52,7 aurrekoa). Caixin manufakturen eta zerbitzuen datu konposatua ere 51,4ra jaitsi zen irailean, aurreko 52,4aren ondoren.

Adierazlearen azalpena

PMI Manufaktura/Zerbitzuak indizeak hileroko erosketen profesionaleri eta enpresetako exekutiboeri manufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzurtzen ari den seinale.

INGURU MAKROA

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreikus pena
10/16	Txina	Urte arteko KPIa	% 1.6
10/16	Txina	Urte arteko ekoizpenaren prezioen indizea	% 6.4
10/16	Japonia	Hileko industria-ekoizpena	--
10/16	Alemania	MoM handizkako prezioen indizea	--
10/16	Eurogunea	Balantza komertziala NSA	23.3b
10/16	Estatu Batuak	Manufakturen inkesta New York	20.0
10/17	Italia	Balantza komertziala guztira	--
10/17	Erresuma Batua	Hileko KPIa	% 0.3
10/17	Erresuma Batua	Txikizkako prezioen indizea	275.6
10/17	Erresuma Batua	IPP NSA MoM ekoizpena	% 0.2
10/17	Eurogunea	Hileko KPIa	% 0.4
10/17	Alemania	ZEW oraingo egoerari buruzko inkesta	89.0
10/17	Eurogunea	YoY azpiko KPIa	% 1.1
10/17	Estatu Batuak	YoY kontsumorako prezioen indizea	--
10/17	Estatu Batuak	Hileko industria-ekoizpena	% 0.3
10/18	Erresuma Batua	Erregistratutako langabezia	--
10/18	Estatu Batuak	Hileko etxebizitza berriak	% 0.0
10/18	Estatu Batuak	Hileko eraikuntza-baimenak	-% 3.3
10/19	Japonia	Balantza komertziala	¥559.8b
10/19	Txina	Urte arteko BPGd	% 6.8
10/19	Txina	Urte arteko xehekako salmentak	% 10.2
10/19	Txina	Urte arteko industria-ekoizpena	% 6.4
10/19	Erresuma Batua	MoM xehek. salmentak autoen erregaiak barne	-% 0.2
10/19	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	--
10/19	Estatu Batuak	Negozioen egoera Philadelphiako Fed	20.5
10/20	Alemania	Hileko ekoizpenaren prezioen indizea	% 0.1
10/20	Espania	Balantza komertziala	--
10/20	Estatu Batuak	Bigarren eskuko etxebizitzaren salmenta	5.30m
10/20	Estatu Batuak	Hileko etxebizitzaren salmenta	-% 0.9

ASTE HONETAN MERKATUETAN

BURTSAK:

Munduko burtsa nagusiek itxiera positiboak izan zituzten. Europan Espainiak bereganatu zuen arreta guztia. Generalitateko presidenteak Kataluniako independentzia deklaratu zuen, ondoren eten egin bazuen ere. Horren ostean, gobernuak Puigdemonti egoera argitzeko eskatu zion, independentziaren deklarazioa indarrean zegoen ala ez jakiteko. Merkatuek modu positiboan jaso dute hori guztia, eta Ibexa igoeren buru izan zen. Atlantikoaren beste aldean, burtsa nagusiek igoerak izan zituzten. Bertan, FEDen azken akten argitalpena izan zen albisterik garrantzitsuena. Inflazioaren bilakaeraren inguruko zalantzak agertzen dira aktan, eta ez da argi utzi noiz egingo den tasen hurrengo igoera. 3Hko emaitzen argitalpenboraldiaren hasiera (zenbait banku nagusiren datuekin) ere garrantzitsua izan zen. Esparru geopolitikoan, AEB eta Ipar Korearen arteko tentsioaren hazkundea nabarmendu behar da, Estatu Batuetako bonbaketariek Ipar Koreako aire-esparrua zeharkatu ondoren. Japonian eta gorakorretan, bestalde, bilakaera oso ona izan da aste osoan.

ERRENTA FINKOA:

Aste honetan, errentagarritasunek behera egin dute, hala zor publiko europarrean nola estatubatuarrean. Alemaniako zorraren errentagarritasunak behera egin zuen, baina Espainiakoa are gehiago jaitsi zen, inbertsiogileen iritziz, Kataluniako ziurgabetasun politikoa pixka bat lasaitu zelako. AEBetan, zenbait inflazio-datu ahul argitaratu ondoren, errentagarritasunak ere murriztu egin ziren, batez ere tarte luzeenetan. Kredituak, bestalde, hobera egin zuen eta bere diferentzialak estutu zituen.

DIBISAK/LEHENGAIK:

Dibisen merkatuan, euroak indarra irabazi zuen dolarrarekiko trukean, Europako industria-ekoizpenaren datu onek bultzatuta eta FEDen aktak argitaratu ondoren. Lehengaietan, petrolio gordinaren prezioaren igoera azpimarratu behar da, AEBetan asteko inbentarioen datu espero baino apalagoak argitaratu ondoren eta AIEk petrolio gordinaren merkatua datorren urtean orekatik gertu egon daitekeela adierazi duela jakin ostean. Urreak ere balioa irabazi zuen, 1.304 \$/ontza mailara iritsita.

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.